

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

ASPARRENEKO UDALA

Bake epaile titularren eta ordezkoren karguak betetzeko deialdia

Amaitu denez udalerrri honetako bake epaile titularren eta ordezkoren lau urteko izendapen aldia, eta behin Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiak jakinarazpena eginda, Udaltzari dagokio hautatzea udalerriko bake epaile titularra eta ordezkoa izango diren pertsonak, bat etorritik botere judizialaren lege organikoak 101. eta 102. artikuluetan eta ekainaren 7ko 3/1995 Arautegiak, bake epaileenak, 4. eta 5.1 artikuluetan xedatutakoarekin.

Hamabost eguneko epea irekitzen da, iragarkia ALHAOn argitaratzen denetik aurrera, legezko baldintzak betetzen dituzten interesdunek agiri hauek udalean aurkez ditzaten:

a) Eskaera.

b) NANaren fotokopia.

c) Erantzukizunpeko aitortpena, baldintza hauek betetzen direla adieraziz:

– Espainiarra eta adinduna izatea, eta ez egotea fisikoki edo psikikoki ezinduta eginkizun judizialak betetzeko, bai eta udalerrian erroldatuta egon eta bizi izan edo bizitzeko konpromisoa hartu ere.

– Doluzko delituagatik auzipetuta edo inkulpatuta ez egotea, edo, hala badagokio, absolutua edo largesteko autoa emanda egotea.

– Eskubide zibil guztien jabe izatea.

– Aitortpena, adieraziz ez dagoela sartuta inolako ezintasun edo bateraezintasun ziotan eginkizun judizialerako, hain zuzen ere Botere Judizialaren Lege Organikoaren 389. artikulutik 397.era xedatutakoetarako, salbu lanbide eta merkataritza jardueretarako.

d) Kargurako egokia dela adierazten duen txosten laburra edo agiriak aurkeztea.

Guztiak jakin dezaten argitaratzen da.

Araia, 2020ko otsailaren 28a

Alkatea

CONSUELO AUZMENDI JIMÉNEZ